

GERRA, ELGOIBARTARREN AHOTAN



36ko Gerrak bizirik dirau orduan ume zirenen oroimenean. 75 urte bete dira Francoren tropek hirien kontrako bonbardaketak egin zituztenetik, eta urteurren hori aitzakiatzat hartuta, gerraren gordina ezagutu zuten elgoibartar talde baten testigantzak batu ditu BARRENEK. Garai zailak izan ziren. Gerrak herritarren arteko hartuemanak ere gaiztotu zituen, eta orduan bizitakoak gogora ekartzea bera ere gogorra egin zaie askori. Zauriak guztiz itxi ez diren seinale, elkarrizketatuen artean izan dira izena eman nahi izan ez dutenak ere.

Ainara Argoitia

Izua erein behar da. Mendekotasun sentsazioa laga behar da, guk bezala pentsatzen ez dutenak eskrupulorik gabe desagerraraziz [...]". Militarren altxamendua izan eta bi egunera, 1936ko uztailaren 19an, Mola jeneralak argi esan zuen zer zetorren, Iruñeko Gaztelu Plazan milaka erreketaren aurrean egindako agerraldian. Gerra hasi zuten. Irailaren 13an Donostia hartu zuten, eta eragozpen handirik gabe zetozen aurrera, Bizkaia hartzera.

Gipuzkoatik errefuxiatuak hasi ziren iristen, eta haiekin batera berri txar ugari ere bai, eta jakina, urduritasuna eta beldurra nagusitu ziren elgoibartarren artean. Jendeak pentsatu zuen erreketek berehala sartuko zirela, eta, izututa, herritar askok ihesari eman zioten iraila aldera. Ardura politikoren bat zuten ezkertiar eta abertzaleek frankisten jazarraldiaren beldurra zuten, Gipuzkoan gertatu ziren fusilamendu eta atxiloten berri zutelako eta asko berehala desagertu ziren. Gazte

askok ere ihes egin zuten, pentsatzen zutelako erreketek eurekin eramango zituztela frontera. "Askok berba egiten zen erreketek hartzen zituzten herrietan egiten zituzten atxiloten eta fusilamenduen gainean, eta jendeak beldur handia zien", gogoratu du Miren Vallejo (Elgoibar, 1923). Hala, askok Markina alderako bidea hartu zuten irailaren 20ko goizaldean. Horixe egin zuten Elgoibarko Ansola anaiek, adibidez. Ama markinarra zuten, eta amaren jaiotetxera ihes egin zuten, frankistengandik ihesi. Jose Ansola, batez ere, oso inplikatu zegoen Elgoibarren, abertzalea eta ELA sindikatukoa zelako, eta erreprezioaren beldur zen. Ansolatarren aita, Laureano Ansola, Elgoibarren gelditu zen, eta berehala atxilotu eta erreketen txapel gorriarekin ibiltzera behartu zuten. Haren alaba bat, berriz, Joanita Ansola Zelaia, Alzolako bainuetxea garbitzera behartu zuten, frankistek hantxe jarri zutelako ospitalea eta koartela (*Markinako Frontea*, EHU).

Beldurrak arinak ditu hankak, eta asko izan ziren, era berean, Frantziara edota Juanito Azkue elgoibartarren antzera, atlantikoaz beste aldera ihes egin zutenak ere. Azkue abertzalea zen, eta Errepublikaren alde jardun zuen Elgoibarren, gobernu errepublikanoaren ideiak bere egiten zituelako baino gehiago altxamendu militarrekin bat egiten ez zuelako. Abertzale askoren kasua izan zen. Ezkertiarrekiko mesfidati ziren arren, Errepublika gobernu legítimoa zela onartzen zuten, eta komunistekin eta sozialistekin batera jardun zuten gerran.

Baina, gerrako kontuak nola diren. Tropa frankisten beldurrez Argentinara ihes egin aurretik, Azkue goardiak egiten ibili zen Elgoibarko udaletxe atarian, Elgoibarko karlistak, anarkistengandik babesteko. Bitxia da kasua. Gerra giroa hasi zenean, EAJkoek herriko eskuindarrak atxilotu zituzten, udaletxean babesteko. Gaurko begiekin begiratuta ez da erraza ulertzen, baina badu bere logika,

*Matxinatuak San Frantzisko kalean aurre-
ra, gaur egungo Iratxo taberna parean.*

Julian Iriondoren arabera (Elgoibar, 1920) :
“Gure etxean, *Euzkadi* eta *El día* egunkariekin
batera, *El Debate* [Madrilgo egunkari katoli-
koa] ere hartzen genuen egunero. *El Debate*-
ren bitartez enteratzen ginen gu anarkistek
zelako astakeriak egiten zituzten Bartzelo-
nan-eta. Hemen halakorik ez zegoen orduan,
baina bai tradizionalisten eta ezkertiarren ar-
teko tirabirak. ‘*Si supieran los curas y frailes,
la paliza que les iban a dar, subirían al coro
cantando: ¡Libertad, libertad, libertad!*’”, kan-
tatzen zuten Eibarren. Gogorraz ziren eibar-
tarrak”. Giro horretan, herritarrek babestea
erabaki zuen EAJK.

Halaxe, hainbat lagunek goardiak egiten
zituzten udaletxe atarian, herriko eskuinda-
rrak babesteko. Anjel Osoro *Mutrikuk*, Felix
Gastesi pilotariak eta Juanito Azkuek jardun
zuten zaintza lanetan, besteak beste. Ez zu-
ten, jakina, gero gertatuko zitzaienaren azta-
rrenik ere. Erreketek Elgoibarrera sartu eta
gutxira atxilotu zituzten Osoro eta Gastesi
(zenbait informazioren arabera, Larruskai-
nen), eta Ondarretako kartzelan preso sartu
ostean, ustez kartzelako hormaren kontra fu-
silatu eta Hernaniko hilerri kanpoan lurperatu
zituzten faxistek.

Francoren tropen iritsiera

Irailaren 21ean sartu ziren Francoren tro-
pak Elgoibarren, 18:00ak aldera, Uparitzaga
gainetik behera. Azkue baserriko ataritik ikusi
zituen Julen Zabaletak (Elgoibar, 1921).
“Jose Maria eta Carlos Ansola anaiekin joana
nintzen ni hara, eta hantxe geunden atarian,
koadrila bat. Bagenekien zetoze eta hantxe



egon ginen, zain, begira-begira. Eta halako
batean bonba bat lehertu zen Amezti gaine-
an. Sekulako inpresioa egin zidan. Orduantxe
ikusi genituen tropak, Upaitzatik (Uparitzaga)
behera, banderak hartuta. 18:00ak aldera
ziren, baina goizeko ordubiak zirela ematen
zuen”. Eguraldi tristea egiten zuela dio, hala-
ko egun ilun batean tokatzen dena. Elizako
kanpaiak dantzarazi zituzten herriko aginta-
riek, zetorrenaz ohartarazteko. Gerraren gor-
dinena iristear zegoen.

Egoera horretan, Nazario Artola, Elgoi-
barko alkate izandakoa, Madalarunz abiatu
zen izara zuri bat hartuta, bake eskean. “He-
rritar batzuek jarraitu zioten atzetik, baina gu
udaletxe ondoan gelditu ginen, geldi, beldu-
rrak lotuta”, aitortu du Zabaletak. Beldurra
berba sarri errepikatu dute BARRENEK elkar-
ketatutako guztiek, baina aipatu beharrik ere
ez dute, gertaera hartatik 75 urte geroago
ere izua nabari zaielako aurpegian.

Miren Vallejo eskuak eraman ditu aur-
pegira, orduan Errosario kaleko bere etxetik
ikusi zuena berriro ikusi nahi ez balu moduan.
“Etxean ezkutatu ginen beldurrez, baina hala

ere, balkoira irten ginen ikustera. Han zihoa-
zen Plazaruntz, besoa altxata eta kantuan.
Azkeneko patruila Errosario kaleko Ama Bir-
jinaren pare aldera iritsi zenean, gure aitak
‘*Gora Euskadi askatuta*’ oihu egin zuen bal-
koitik. Zoratu egin zen”. Hurrengo egunetan
lorik ere ez zutela egin aitortu du, aitaren bila
noiz etorriko ziren beldurrez. Izan ere, haien
etxe parean, bi ate gorago, karlista batzuk bi-
zi ziren. “Baina ez, haiek serioak ziren, eta
hartu-eman handia zuten gure aitarekin. Or-
duko hartan libratu ginen” [Gernika bonbar-
datu ostean beste eskapada bat egin zuen
Mirenen aitak, bertsio ofizialaren kontra, Ger-
nika Francoren aldekoek bonbardatu zutela
esateagatik]. Biharamunean, “dar-dar bate-
an” egin zuen Mirenek etxetik elizara arteko
bidea. “Derrigor” joan beharra zeukan. “Ga-
rai hartan, baserrietan norbait hiltzen zenean,
argizaiola pizten genuen kalean bizi ginenok
elizan, haiek ezin izaten zirelako 9:00etako
mezetara etorri, eta gure amamak agindua
zien baserriar batzuei geuk piztuko genuela
eurena”. “Beldurrak jota” pasa zen solda-
duz gainezka zegoen plazatik.



Erreportajerako aurpegia eman dutenak. Miren Vallejo, frontea egon zen lekua zehazten; Julen Zabaleta, Itziar Ajuria eta Julian Iriondo; eta Sabin Osoro, Durangoko bonbardaketan ama galdu zuen elgoibartarra.



Kalegoen plazan (Plaza Handia) jarri zuten komandantzia matxinatuek, Francoren aldekoek.

Ordurako, tropa frankistak Elgoibarren sartu zirenerako, Vallejotarrek topatua zuten etxea Santanderren, hemendik ihes egiteko, baina azkenean herrian gelditzea erabaki zu-

ten, amama ezinduta zutelako etxean.

Ajuriatarrenean ere bazen kezka eta ezinegona. Batzokiko presidentea zen sasoi hartan Itziar Ajuriaren aita, eta Bizkaia aldera ihes egitekotan ere egon zen, baina herrian gelditzea erabaki zuen azkeneko unean, emaztea eta alaba txikia bakarrik ez lagatze-agatik. "Herri hau kristautzera gatoz esanez ibili ei ziren erreketek". Ajuriak ondo gogoan dauka orduko giroa. Matxinatuek bandoa jo zuten, eta erreketek eta soldaduak etxean hartzera behartu zituzten elgoibartarrak; euren ere egin zieten lekua biri. "Plazatik hasten ziren erreketeeentzako alojamendu bila, eta han ez zegoen ezetzik esaterik. Erreketeeentzako alkandorak ere josi arazi zizkioten gure amari".

1936ko irailaren 23an, lehenengo borroka izan ziren Aiaztia, Urkaregi eta Kalamua inguruan, eta hainbat miliziar eta erreketek hil ziren. Kalamueako posizioetan ehun metroko distantzia zegoen batzuen eta besteen artean, eta odol berekoak parez pare ere izan ziren zenbaitetan. Fusilen bidez egindako erasoak etengabekoak izan ziren fronteak hemen iraun zuen zazpi hilabeteen. Erreketeen abesti honek ondo adierazten du 36ko Gerran Kalamuan gertatu zena: "*En el monte Calamúa, hay una fuente que mana, sangre de los requetés, que murieron por España*". Hildakoak, baina, bi bandoetan izan ziren, eta Joan Joxe Arrizabalagak hala jaso

zuen *Markiña Zarra Kontu Kontari* liburuan: "Gipuzkoarra" k, naparrak, bizkaitarrak, makiña bat mutill eder dagoz Kalamuan ixill-ixillik".

Gerrako egunerokoa

Kalean, elgoibartarrak ohituak ziren gerrako bizimodura. Erreketek San Bartolome parrokiako arkupeetan jarri zuten intendentzia, eta herrian atzera eta aurrera ibiltzen ziren; baita soldaduak ere. Mandazainak ere gora eta behera ibiltzen ziren, frontean zeudenei jana eramaten, eta Margarita eta Pelaio gaztetxoek desfileak ere ohikoak ziren. Julen Zabaletak gogoan dauka Pelaioen desfilean irten zen aldia. "Joan egin behar nintzela esan zidaten, eta ni, mutiko gaztea, han joan nintzen, falangisten bulegoan emandako alkandora urdina jantzita", dio. Tentsio giroa bizi zen herrian, eta ordura arte bakean bizi zirenen arteko harremanak ere gaiztotu ziren, bizilagunen arteko salaketak areagotuz. "Mendekuz", direnak eta bi egin zituzten gerran. Olosope (Olasozpi) baserrikoei gertatutakoa ekarri du gogora Iriondok: "Militar asko hil zituzten eraso batean, eta haren ondotik txibatoen bila hasi ziren. Eta Olosopekoak [hartu zituzten preso, txibato lanetan jardun zutela leporatuta. Epaiketa sumarisimoa egin zieten, eta fusilatu ere egin zituzten bi edo".

Gerrak iraun zuen denboran, elgoibartarrak beldurrez bizi izan ziren. Herriko gazte

Gerran hildako elgoibartarrak

Gernikako bonbardaketa

LADISLAO ARRILLAGA IRUSTA ETA MARINA ABASCAL GABILONDO.

1937ko apirilaren 26an hil ziren, Gernikako bonbardaketan. Borroka lerroetatik urrun zegoen Gernika, baina hiru ordu eta laurdenean euskaldunen kultur tradizioaren hiria zena bonbardatzen jardun zuten alemaniarren Condor Legioko italiarren Aviazione Legionaria-ko hegazkinek. 16:00etatik ilundu bitartean, Gernika eta inguruetan hegaldaka ibili ziren Francoren aliatuak, Gernikatik babestera ihesi zihozten zibilak metrailatuz. Bonbardaketa hartan hil ziren Ladislao Arrillaga eta Marina Abascal senar-emaztegaia eta haien txakurra: Kety.

Gernikan azoka eguna zuten egun hartan, eta emaztegaia bisitatzera joan zen Ladislao Gernikara, haren iloba Flora Arrillagak BARRENI azaldutakoaren arabera: "Gauza garbirik ez dakit. Dakidan apurra da osaba eta Marina elkari besarkatuta hil zirela arbolape batean, Gaute-giz-Arteagan. Azoka eguna zen, egun handia, eta Marina ikustera joan zen gure osaba hara". Ladislao eta Marinaren gorpuak Elgoibarko hilerrian lurperatu zituzten gero.

Durangoko bonbardaketan hildakoak:

ANGEL SUAREZ ETXEBARRIA ETA TERESA UNZUETA UNZUETA.

George Steer kazetari estatubatuarak *The Times* egunkarian argitaratutako kronikak eta, batez ere, Pablo Picassoren *Guernica* koadroak mundu osoan ezagun egin zuten Gernikako bonbardaketa, baina aurrez ere txikizio handia eragin zuten Francoren eskuadroei leialek. 1937ko udaberrian hasi zuten frankistek Bizkaiko erasoaldia, eta martxoaren 31n egin zuten hirien kontrako lehenengo aire erasoetako bat. Egun horretan Durango eta Elorrio bonbardatu zituzten. 300dik gora lagun hil ziren, tartean bi elgoibartar: Angel Suarez Etxebarria eta Teresa Unzueta Unzueta.

Durangoko elizan harrapatu zuen bonbardaketak Teresa Unzueta, meza nagusian, eta aitxixaren etxean zeudela jakin zuen Sabin Osorok euren ama hil zutela. "Gure aita Frantziara alde eginda zegoen, eta ama beste aldera, gorrien edo gudarien partera, pasatzera behartu zuten nazionalek, otsailaren 11n, Lurdesko Ama Birjinaren egunean [Senarra beste bandoan zutene emakume batzuei alde egiteko baimena eman zieten nazionalek, eta asko Bizkaia-eraman zituzten trenez].

Soarteko etxea baino beherago jarri zuten artilleriako bateria. Gaurko Santa klara kale hasieran.

asko zeuden kanpora ihes eginda edo frontean borrokatzen, eta Pireinaca irriaren bidez izaten zuten askok gerraren berri. Pireinaca entzutea galarazita zegoen, jakina, eta elgoibartarrak Goiko Errotan batzen ziren, isilean, Parisera alde egindako Olaso aitak [Alberto Onaindia abadeak] kontaktzen zituenak entzutera. Julian Iriondo zen han biltzen zenetako bat. "Errotak ateratzen zuen burrunbarekin disimulatzen genuen irrati zarata. Egurra ematen zion Aita Olosok Francori".

Iriondok zuzeneko tratua izan zuen Olaso aitaren anaia Zelestinorekin. Izan ere, Zelestino Onaindia abadea eta garai hartan Etxebarriako parrokoa zen Frantzisko Etxebarria euren etxean izan zituzten apopilo, harrik eta urriaren 21ean militarrek etorri, biak preso hartu eta Ondarretako kartzerala eramanean zituzten arte. Hantxe fusilatu zituzten, eta Hernaniko hilerri kanpoan lurperatu zituzten gero, "kanposatu barruan, lur santuan, lurperatzea merezi ez zutela-eta". Begiak ere bete zaizkio Iriondori ordukoa gogoratzearekin batera. Estimatu handitan zuen Julianek Zelestino. "Corona idazteko makina txiki bat ekarri zidan behin, eta *El principio del génesis explicado por el vascuence* liburuak kopia-tzen lagundu behar niola esan zidan. Azkenean, baina, militarrek sartu zirenean erre egin genuen. Liburu eder ugari erre genituen. Sekulako pena eman zidan. 'Liburuak erre egin behar ditugu, arriskutsuegia da hemen



Frontetik bonbak eta bala galduak iristen ziren, eta airez ere eraso zioten Elgoibarri

gordetza-eta' esan zidan". San Frantzisko kaleko iturri ondoan zegoen gasolindegian ikusi zituen azkenekoz Miren Vallejo, goardia zibilen autoan, atxilotuta. Fusilatza zeramatzen.

Frontea egonkortu zenean, 1936ko urriaren hasiera aldera, faxisten hegazkinak sarriago agertzen hasi ziren, eta gerra

egiteko modu berri bat hasi zuten matxinatuek, atzeguardia ahultze aldera: zibilen kontrako bonbardaketak. "Kalamua aldetik agertzen zen noizean behin *El Abuelo* esaten genion hegazkin zaharra", gogoratu du Vallejo. "Gerra hegazkinek binan botatzen zituzten bonbak, eta horietako batek jota hil zen Puri [Iturzaeta] bere ortuan", gehitu du Zabaletak. Bonbak eta bala galduak ere sarri iristen ziren kalera. Karakaten nazionalak zeuden, eta Galdaramiñon, gorriak, sozialistak. Elkarri kanoikadaka ibiltzen ziren. Kalamuatik ere botatzen zituzten bonbak. Hain zuzen ere, eta bildutako lekukotzen arabera, Kalamuatik botatako kanoikadek jota hil ziren hiru elgoibartar, Karnabal domekan, 1937ko otsailaren 7an: Martzelino Elortza Butron, Mikaela Lete eta *Extremeña* esaten zioten emakume bat.

Eta Durangora joan zen gure ama, han senideren bat zuen-eta. Egunero joaten zen elizara, eta eliza barruan hil zuten", gogoratu du.

14 urte zituen Sabinekin garai hartan. Amari jarraitzea ere pentsatu zuen otsailaren 11 hartan, baina soldaduek ez zioten laga: "Maleta bat hartu eta trenbidean aurrera abiatu nintzen emakume talde hura zain-tzen zihoazen goardia zibilen atzetik. Andikano baino aurrerago soldaduak ikusi nituen, baina nik isilik aurrera. Halako batean, 'alto' oihu egin zidaten, baina nik jaramonik ez. Berrito ere, 'alto' haiek, eta nik aurrera, baina hirugarrenegoz atentzioa deitu aurretik burua bueltatu nuen, bestela bertan garbituko nindutela pentsatuta, eta han nituen fusilarekin apuntatzen. Esan zidaten mutil koxkor bat nintzelako ez nindutela kartzelara bidaltzen". Durangon dago hilobiratuta Sabinen ama.

Elgoibarren hildakoak:

PURIFICACION ITURZAETA ITURZAETA.

Aire erasoan hildakoa: Purificacion Iturzaeta Iturzaeta *Mujikanekoa*. Etxe aurrean harrapatu zuen bonbak, ortuan. Mujikaneko hormaren beste aldean bi soldadu ere bazeuden, eta haietako bat ere hil zen ai-

re erasoan. Julen Zabaletak ondo gogoan dauka Iturzaeta hil zen eguneko erasoak: "Binaka botatzen zituzten bonbak hegazkinetik. Bonba txiki batzuk ziren, baina jausten ziren lekuan belarra ere erre egiten zuten. Zulo haiek denak ikusi nituen nik".

MARTZELINO ELORZA ARRIZABALAGA 'BUTRON', MIKAELA LETE ZENDOIA ETA 'EXTREMEÑA' EZIZENAKO BAT.

Martzelino Elorza Butron *hojalateroa* eta Mikaela Lete Zendoia San Frantzisko kaleko 14. zenbakian bizi ziren, eta frontetik, Kalamua aldetik, botatako kanoikada batek jota hil ziren biak. "San Frantzisko kaleko zerkan, erreka aldera, korta moduko bat zuten, eta bonbetatik ihesi hara joaten ziren babestera. Hantxe harrapatu zituen bete-betean bonba batek", zehaztu du Zabaletak. *Extremeña* ezizeneko emakume bat ere hil zen Elgoibarren, kanoikada batek jota, baina galdekatutako inork ez du bere izena gogoratzen.

Herrian bertan hildakoei frontean hildakoak eta fusilatutakoak gehitu behar zaizkie. Elgoibar 1936 taldeak jaso ditu haien izenak (www.elgoibar1936.blogspot.com)

ARNALDO OTEGI

Espainiako Auzitegi Gorenak *Bateragune auzian* emandako epaiaren eta egungo egoera politikoaren gaineko balorazioa egin du Arnaldo Otegik (Elgoibar, 1958) kartzelatik. Tartean, ezkerrearen erronken, independentziaren eta presoen gaiaren inguruko gogoeta ere egin du, eta maiatzaren 12an Otegiren aldeko herri ekimenak deituta Elgoibarren egin zen manifestazioa ere izan du hizpide. Gorenak kasazio helegitearen inguruan emandako epaiaren berri jakin eta astebetera egindako elkarrizketa duzue hau, ETAk Espainiako eta Frantziako gobernuarekin "elkarrizketa zuzena" izateko ordezkari bat izendatu zuela jakin berrikan egindakoa.

**“Bakearen etsaiek
agenda propioari
eusten diote
prozesua
kolapsatzeko”**

Zigorak murriztu arren, Espainiako Auzitegi Nazionalaren tesiarekin bat egin du Auzitegi Gorenak ‘Bateragune auzian’. Hau da, dena ETA da tesiarekin. Zer balorazio egiten duzu?

Balorazioa egiteko orduan lehen ondorioa garbia da: Espainiako tribunalek euskaldunak epaitzen gaituztenean kriterio politikoak erabiltzen dituztela sententzia idazteko orduan, eta ez irizpide juridikoak. Bada atera beharreko bigarren ondorio bat ere: gure atxilotaketa eta kartzelazeeekin ezker abertzaleak bake bidea ez hautatzea bilatzen zuten, eta, orain, epai honekin (Parot doktrinarekin egin bezala), bakea zapuztea dute helburu. Gogorra bada ere, argi esango dut berriro ere: bakearen etsaiek (PP, PSOE, indar armatuak...) agenda propioari eusten diote prozesua kolapsatzeko. Ez dute lortuko, baina!.



Gorenaren epaian bi boto partikular izan dira. Zer garrantzia ematen diozu horri? Zure defentsak Auzitegi Konstituzionalean aurkeztu asmo duen babes helegiteari begira, eraginik izan dezake horrek? Alegia, badago boto partikularrak pisua izan dezakeela pentsatzeko arrazoirik edo aurrekaririk?

Irakurketa juridikoa eginez, guk kartzelan jarraitzearen injustizia handitu egiten du oraino, zeren eta bi boto horiek zera adierazten dute: tribunalaren %40k epaiketa ez zela justua eta inpartziala zela esan zuela, eta horri gehitzen zaio %20k gure kontrako frogarik ez dagoela gehitu zuela. Horrek gure kaleratzea ekarriko luke edozein zuzenbide estatutan, baina estatu espainiarrean erabakia berriz ere termino politikoetan hartuko da.

Gorenaren epaiak jende asko atera du kalera. Elgoibarren ere 'Bateragune auziaren' bidegabekia salatu zuten ehunka lagunak joan zen astean [maiatzaren 12an], eta Elgoibarko Udaleko Osoko Bilkurak ere idatzi bat kaleratu berri du, zuen absoltzioa eskatzen. Zer duzu esateko?

Lehenik eta behin, neure eskerrik beroena eman nahi diet bai gurekiko zein gure sendiekiko elkartasuna adierazi duten guztiei, bereziki Elgoibarko plataformako kideei eta baita Udalean sostengua eman diguten guztiei ere. Bigarrenik, zera esango nuke: Euskal Herrian bizi dugun egoera berriak aukerak biderkatzen dituela elkarturik lan egiteko. Zentzu horretan asko poztu nau Elgoibarko plaza eta kaleak hainbat ekimenetan ezker abertzaleko, EAKo, Aralarreko, Alternatibako, Gaztetxeko, ELAKo, LABeko, UGTko, CCOOeko... eta baita PSE-EE eta PNVko jendek beteak ikusteak.

Askok galdetzen dute zer moduz zauden eta zelan bizi duzun kartzelatik kanpo gertatzen ari dena. Nola bizi duzu ETAK borroka armatua lagako zuela esan zuenetik sortu den delako 'aro berria'?

Oso gertutik jarraitzen dut kanpoan ematen ari den bilakaera politikoa eta soziala. Lan handia egin genuen ETAK urrats hori egin zezan, eta konfiantza eta indarra ematen dit. Kartzelaldia bera (guztira hamar urte daramazkit barruan) Mandelak sujeritu zuen bezala daramat: burua landuz (ikasi, irakurri...) eta gorputza zainduz (kirola eginez), eta aldi berean, Ghandiren esaldia eguneroko gogoratuz: *Gobernu injusto baten pean egon ezker, edozein herritar ondradu kartzelan egon beharko zen.*

Gorenaren epaiaren berri jakin bezain laster, ezker abertzalea lehendakariako hautagai gabe gelditu zela argitaratu zuten zenbait egunkari. Zuri buruz ari ziren. Lehendakari ikusten zara? Lehendakaritza lortzea da ezkeraren helburua?

Atxilotu gintuztenean, ezker abertzalea gure lidergorik gabe utzi nahi izan zuten zirkulazio politikotik at utziz. Orain pozik daude, uste dutelako nire hautagaitzarik gabe Amaiurrek ez dituela Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak irabaziko. Ikusiko dugu nor dagoen pozarren hauteskunde gauean; gu ziur baietz! Lehendakaritza hartzea barik herri gehiengoaren interes ekonomiko, sozial, eta kulturalaren aldeko Gobernu osatzea da helburua. Bakea egonkortu eta krisi ekonomikoari aurre egingo dion Gobernu burujabea eta ezkertiarra lortzea.

Gobernuekin elkarriketa zuzenak izateko ordezkaritza izendatu du ETAK, eta Europari eskatu dio gatazkari behin betiko konponbidea emateko prozesua sustatzeko. Aieteko Adierazpena bere osotasunean garatzeko baldintzak daudela uste du, eta Espainiako eta Frantziako gobernuei eskatu die bere delari luze gabe erantzun positiboa emateko. **Zer espero duzu gobernuengandik?**

Ez dira mugituko geuk mugiarazten ez baditugu, ez dutelako bakerik nahi! Kontuan hartu behar da bakearen aurkako agenda manejatzen dutenak oso eroso bizi zirela ETArekin borroka armatua gauza guztietarako aitzakiatzat erabiliz. Orain, aldiz (aitzakiarik gabe), ez dute bake eskenatokirako alternatibarik. Beldurra dute, ahulduta daude, jakin badakitelako ez dutela inongo argudio demokratikorik Euskal Herriari bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzea ukatzeko. Horregatik etengabe aitzakia-baldintza berriak jartzera behartuak daude, aitzakiarik gabe bere jarrera autoritarioa eta zapaltzailea gero eta ageriagoa delako gure herriaren aurrean.

**ETAK Europako komunitateari zuzendu dio azken agiria, eta zabaldu-tako prozesua babesteko eta sustatzeko eskatu die Europako erakunde-
deei. Zer papel bete beharko luke Europak 'euskal auzian'?**

Gure estrategia berrian nazioartean konplizitatea lortzeko garrantzia oso handia dauka, eta bide horretan, Aieteko konferentziak argi adierazi zuen konplizitate hori noraino heltzen den, soluzio bide demokratikoaren arloan. Euskal arazoa Europako arazoa da, nazio europarra garelako lehenengo eta bigarrenengo zapaltzen gaituzten estatuak Europako Batasunean daudelako. Eta hirugarren arrazoi bat ere bada, eta garrantzitsua: Europako markoan guk aldarrikatzen ditugun soluzioak martxan direlako: Irlandan eta Eskozian, adibidez.

Independentzia eskatzen du ezker abertzaleak. Batzuek zalantzan jartzen dute ekonomikoki

onuragarria izango litzatekeen euskal heritarrentzat. Zer diozu?

Carlos III. Espainiako Unibertsitateak orain dela hilabete batzuk gai honen inguruan plazaratutako azterketa sakonean zera zioen: Europan estatu (independentea) izateko baldintza ekonomikoak (eta besteak) hobekien betetzen zituztenak Euskal Herria eta Eskozia zirela (Kataluniaren aurretik), eta berriro diot hori Espainiako unibertsitate batek esana da. Bigarrenik zera esango nuke: euskaldunok merkatu espainiarrean gure ekoizpenaren %30 saltzen dugula. Afera da merkatu espainiarrak *bankarrotan* dagoela eta ez dela errekonstrutuko; ez da berriro lehengo egoerara itzuliko. Hori ikusita, gure ekoizpena Europako herrialdeetara eta garatzeko bidean diren herrialdeetara saltzera behartuak gaude (Txina, India, Brasil) merkatu espainiarretik ahalik eta menpekotasun gutxien edukitzeko. Eta hirugarrenez, gure barne eskaera handitu behar dugu ongizate estatua (soldadak, osasuna, hezkuntza, sektore publikoa indartzuz...). Horrela aterako garelako krisitik, neoliberalak planteatzen dutenari alternatiba sozial eta aurrerakoa eskainiz. Eta bukatzeko galdera bat: nor dago prest gure seme-alaben eta biloben etorkizun ekonomiko, sozial eta kulturala, eta heziketa, Aznar, Raxoi, Rubalcaba, Mayor, Rato, Ares eta abarren esku uzteko? Gu ez. Dugun arduragatik besterik ez bada, guk euskaldunen esku nahi ditugu esku-men horiek guztiak.

**“Bakearen etsaiek,
PP buru dutela,
kartzeletan
korapilatu nahi dute
bake prozesua”**

Zergatik independentzia?

Oso labur erantzungo dizut: euskaldunok orain eta etorkizunean askoz hobeto bizitzeko.

Asko hitz egiten da azkenaldian ezkerrearen krisiaz. Mundu zabalean eskuinak urrats handiak egin ditu aspaldian. Zerk huts egin du? Zer egin du gaizki ezkerrek?

Bai, eskumak urrats handiak egin ditu, eta hona hemen horren ondorioa: lehen aldiz historian belaunaldi berriak gurea baino bizi baldintza txarragoetan bizitzera daude kondenatuta: beldur gehiagorekin eta eskubide gutxiagorekin. Gauzak aldatzen ez baditugu, noski!. Eskumaren azken urratsa ondo planifikatutako krisia da, finen. Krisia deitu beharrean estafa erraldoia deitu beharko genioke, hemen martxan dagoena diru publikoaren arpilatze edo sakeo pirata delako. Dirua esku pribatuetan uzteko (gero eta esku gutxiagotan, Marxek zioen bezala). Eta bide batez, hainbat urtetako borroketan lortutakoa ezabatu nahi dute. Nik jendea gauza batez ohartarazi nahi dut: hau ez da krisi arrunt bat. Hau zibilizazio krisi bat da, non krisi ekonomikoari krisi energetikoa (petroleoa bukatzen hasi da) eta krisi ekologikoa gehitu zaizkion, planeta eta gizakia bera arriskuan jartzearaino. Ezkerrearen zeregina hausnarketa hau herriarekin konpartitu eta alternatiba estrukturala ematea da.

Gizartea aldatu egin ei da, eta inkesten arabera, gero eta gehiago dira politikarekiko interesik agertzen ez dutenak. Zer dago horren atzean?

Arrazoi ezberdinak badaude ere, bada niretzat bat funtsezkoa dena: herriak garbi ikusi du politiko profesionalek (toki guztietan eta hemen ere bai orokorrean) merkatuaren mesedetan lan egiten dutela (merkatuak banketxeak eta multinazionalak dira) eta haien aginduak bete ostean, saritu egiten dituztela (Telefonikan, Petronoren, Confebasken, Ferrovialen, FMI...). Horrek, noski, politika ofizialek aldentzeko joera suspertzen dio herriari. Aldiz, saria baino gehiago zigorra dago politika herritik eta herriarentzako planteatzen dugunontzat; kartzela.

“Herri borrokarik gabe ez ditugu helburuak lortuko”, esana duzu. Ez dakit ezker abertzaleko militanten kasua den, baina konpromiso mailak behera egin ei du. Militantzia ez da garai batekoa. Nola batu indarrak?

Euskal Herrian zorionez jende konprometitu asko dago bai politikan, kulturen, euskararen, edo eta kirolean, eta horrek oso aberatsa egiten du herri hau. Momentu honetan indarrak biltzeko aukera ezberdinak daude martxan: ezkerreko independentistak biltzen ari gara, presoan alde ere indar metaketa anitza daukagu, eta nire ustez, krisi ekonomikoaren aurka biltzea ere oso beharrezkoa zaigu.

“Helburua lortuko dugu” diozunean independentziaz ari bazara, behinik behin, aukerarik ikusten al duzu EAJ erakartzeko?

Independentziaren alde herriaren gehiengoa da seduzitu beharrezkoa, baita EAJ edota PSE/PSNko oinarri soziala ere, zalantzarik gabe. Herri gehiengo hori konbentzitu eta antolatuz ezingo gaituzte gelditu.

Berradiskidetzea bultzatzeko egitasmoa jarri du martxan Elgoibar-ko Udalak, Lokarri eta Baketikekin elkarlanean. Horren harira Jonnan Fernandezi egindako bi galdera egingo dizkizugu. Zelan adiskidetzen da herri bat horrenbeste itxi gabeko zauri daudenean? Eta zure ustez, zer da derrigorrezkoa eta zer komenigarria, bakea lortzeko?

Adiskidetzea beharbada helburu potoloegia iruditzen zait oraingoz. Hasi gaitezen elkar errespetatzen eta bakoitzak eragindako sufrimenduaren ardura onartzen, eta berriz ere ez gertatzeko konpromisoa hartzen. Gu egiten ari gara. Estatuak ez. Besteak beste, bai PSOEek eta PPK gezurretan (edo ez egia osoan) oinarritutako kontakizuna inposatu nahi dutelako. Lopez lehendakariak dio etorkizuna egian, justizian, eta memorian oinarritu beharko dela, eta gu ados gaude, baina egia osoan, justizia osoan eta memoria osoan egin behar dela diogu.

Zuk esana da askok uste dutela ezker abertzalearen estrategia berriaren “berritasun bakarra eta determinantea” borroka armatuaren ingurukoa izan dela, baina hori baino gehiago dela babestu duzu. Zer estrategia berri dakar ezker abertzaleak?

Niretzat aspalditik zegoen argi estrategia berriarentzat borroka armatua bukatzea ezinbesteko baldintza zela, baina, aldi berean, argi zegoen ez zela baldintza nahikoa gure helburuak lortzeko. Ezker abertzaleak alternatiba integral, demokratikoa eta askatzailea eskaintzen dio Euskal Herriari, zibilizazio krisiari irtenbideak bilatuz, bai nazio mailan eta baita alor sozialean ere.

Urtarrilaren 7an Egin Dezagun Bideak deituta Bilbon egindako manifestazioak eztabaida politikoaren erdigunean jarri ditu presoak. Etxeratzea eskatzen dute batzuek, eta amnistiarik ez dela egongo erantzun dute besteek. Presoen gaiak zer eragin izango du konponbidea lortzeko bidean?

Bakeak eta soluziobideak presoan askatzea eskatzen dute Euskal Herrian, Irlandan, Hegoafrikan eta beste hainbat lekutan eskatu zuten bezala. Orain, bakearen etsaiek PP buru dutela, bake prozesua karteletan korapilatu eta kolapsatu nahi dute etengabe baldintza berriak asmatuz, eta horri aurre egin behar zaio, presoak bakearen aurka erabili nahi gaituztelako.

Zer pauso aurreikusten dituzu hemendik aurrera?
Ez ditut zehaztuko, besteak beste, tarte handiegia beharko nukeelako, baina orokorrean zera esango nizuke: bakearen etsaien blokeo saiakerai guk urrats berriekin erantzungo diegula.

Zerbait esan nahiko zenieke zure herrikideei?

Eskerrak eman nahiko nizkie erakutsitako elkartasunagaitik, eta aldi berean, animoak bidali arrazoi batzuegatik edo besteengatik gaizki pasatzen ari direnei (langabezia...). Eta bukatzeko bizi dugun une historiko honetan parte hartzeko eskatuko nieke. Osasuna eta askatasuna guztiontzat!

Eskerrak eman nahiko nizkie erakutsitako elkartasunagaitik, eta aldi berean, animoak bidali arrazoi batzuegatik edo besteengatik gaizki pasatzen ari direnei (langabezia...). Eta bukatzeko bizi dugun une historiko honetan parte hartzeko eskatuko nieke. Osasuna eta askatasuna guztiontzat!

“Has gaitezen elkar errespetatzen eta eragindako sufrimenduaren ardura onartzen”

GUDARIEI OHORE ZIRARDAMENDIN



Lekukoak eta instituzio publikoetako ordezkariak, zapatuan, 36ko gerran hildako gudarien gorpuzkinen aurrean.

Garaituen tragedia bistaratu zuten zapatuan Aranzadi Zientzia Elkarteak, Elgoibar 1936 taldeak eta Markinaldeko Ahaztuen Oroimena elkarteak Zirardamendin. Inguruko baserrietako jendeak, eta, bereziki, Bitorio Agotek eta Felix Etxeberriak emandako lekukotzei esker, 1936ko gerran Francoren kontra jardun zuten lau gudariaren gorpuzkinak atera dituzte lur azalera, eta era horretan, duintasuna itzuli diete gerra hartan askatasunaren alde bizia eman zutenei eta haien senideei.

Urteetako isilunea hautsi zen zapatuan Zirardamendin, gudariei egindako omenaldian. Lekukotzak eman dituztenez gain, eta Elgoibar 1936 eta Markinaldeko Ahaztuen Oroimena elkartetako ordezkariak gain, Zi-

rardamendin hildako Felix Arbulu Bilbao gudariaren iloba batek [Joseba Tobar Arbulu], Xabier Arrizabal *Ziarda* bertsolariak, Haritz dantzari taldeko Haritz Arrietak, Martin Garitano Gipuzkoako ahalzun nagusiak, Joseba Egibar GBBko lehendakariak, Bittori Zabala Elgoibarko Berdintasun Saileko zinegotziak eta Ines Ibañez de Maeztu eta Marina Bidasoro Jaurilaritzako eta Foru Aldundiko Giza Eskubideen Saileko zuzendariak parte hartu zuten. Errepublikaren, Euskal Herriko askatasunaren eta Eusko Jaurilaritzaren aldeko borrokan hil zituzten gudarien alde, Elgoibarko Udalak onartutako adierazpena irakurri zuen bertan Zabalak. [EAJ, Bildu eta PSE-EE alderdien botoekin onartutakoa]. Jendetza handia batu zen omenaldira, eta ekitaldian zuzenean parte hartu zutenez gain, Zirarda-

mendin zeuden Markel Olano Gipuzkoako ahalzun nagusi izandakoa, Sabino Arana Fundazioko presidente Juan Mari Atutxa, eta Juan Karlos Alduntzin Gipuzkoako Ingurumen diputatua ere.

Paco Etxeberria eta Lurdes Errasti antropologo eta Aranzadiko kideek zuzendu dituzte indusketak, eta Errastik berak eman zituen azalpenak. "Hemen daukagun hobian lau pertsonaren eskeletoak daude. Laurak gora begira daude (...) Gure dokumentuan jasotakoaren arabera, laurak oso gazteak izan behar ziren, eta hori betetzen da. 19 eta 25 urte bitartekoak izango dira laurak ziur aski". Bitorio Agoteren argibideei esker lekutu dute hobia, eta hantxe zen Agote bera ere, azalpenei adi. Hunkituta zegoela igartzen zitzaien. Bere aitak lurperatutako lau gudariaren

gorpuzkinak zituen aurrean, baina haien saso berean hildako miliziano bat topatu ezin izana zerabilen buruan bueltaka (Aranzadiok beste bi lekutan jardun dute aurrez lanean, baina ez dute aztarnarik topatu).

Testuinguru politikoa

1936ko irailaren 21ean sartu ziren frantziarrak Elgoibarren, baina ordurako mendira igota zeuden Gipuzkoatik babes bila eta ihesi zetozen miliziano, anarkista eta abertzaleak. Ordurako, era berean, EAJk bere babesa emana zion Gobernu errepublikarrari. Irailaren 11n sozialisten eta jeltzaleen artean Madrilén izandako elkar-ulertzearen ondotik, Largo Caballeroren Gobernuan karterarik gabeko diputatu izendatu zuten Manuel Irujo EAJko agintaria, zeinak Jose Maria Lasarte-rekin batera [1936an diputatua eta Eusko Jaurlaritzako informazio zerbitzuko buru izan zen gerra amaitu arte], Euzko Gudarostea sortu zuen irailaren 25ean.

Hala, Euzko Gudarostea sortuta, EAJk frontera joateko deia egin zien gazteei, baina izan ziren, era berean, euren gogoz, herriko batzokietan frontera joateko izena eman zutenak ere. 36ko irailaren 24an, gudariarentzat armak iritsi berrikan, hainbat gudari irten ziren Bilbotik Eibarrerantz. Bizkaitarrak ziren guztiak; Abando, Barakaldo, Bilbo, Begoña eta Deustuko batzokietan erreklutatutako 150 bat gazte. Haietako zenbait, tartean Garaizabal eta Zubiaur konpainiakoak, Etxebarritik Urkaregira igo ziren, eta Urkaregitik Aiestia aldera etorri ziren gero, posizioak hartzera. 1936ko irailaren 25ean, baina, eraso gogorra izan zen Zirardamendiko pagadian. Altzola aldetik igotako reketeez ezustean harrapatu zituzten gudari gazteak Zirardamendin, eta hantxe gelditu ziren betiko Miguel Palacios Gomez, Juan Agirre Bilbao, Paulo Beraza, Blas Larrazeta, Juan Zabala, Ambrosio Etxeberria, Pedro Rodriguez Puig, Jose Txinturreta Zamakona, Felix Arbulu Bilbao eta

Jose Anzueta Mendiola, besteak beste. Jose Maria Otsoa de Txintxetru gudariak bertatik bertara ikusi zuen ikuskizun latz hura. Bera ere zauritu zuten, baina Sagarna baserrira iristea lortu zuen, eta han *cognac* botila erdi hustu zuen, mina arintze aldera. Hari esker lortu zuen Bilbora iristea, berak behin baino gehiagotan kontatu izan duenaren arabera.

Gertaera haren ondotik, borrokaldi gogorak izan ziren Aiestia-Urkaregi aldean, inguruko tontorrek bere egin nahi zituztelako bi aldeek. Urriaren 4an frontea inguru horretan egonkortu zen, eta zazpi hilabetez ez atzera ez aurrera egon ziren bertan.

Egoera horretan, Zirardamendi inguruan gelditutako hilotzak hobiratzeko agindua eman zien Elgoibarko Udalak inguruko baseritarrei, eta hala egin zuten, besteak beste, Bittor Agoteren aitak eta Ziarda bertako Arriabalagatarrek. Orain, 76 urte geroago, argia eman diete Errepublikaren alde hil ziren gudari gazteei.

Joseba Felix Tobar Arbulu, Felix Arbulu gudariaren iloba



Zure osabarena da ustez Zirardamendin topatu duten lau gudarien gorpuetako bat. Gorpuak identifikatu gabe egongo dira ziurrenez oraindik, eta nola iritsi zarete konklusio horretara?

Ez. Printzipioz, bederatziz gorpu zeuden, eta soilik lau aurkitu dira. Lau gorpu horiek Aranzadiok eraman dituzte hezurak garbitzeko, neurtzeko eta gero hainbat analisi egiteko. Lehendabizi ikusi behar dute ea hezurretan, eta batez ere, hortzetan material nahikoa dagoen ADN (edo DNA) frogak egiteko. Hala baldin bada, gure amarengana etorriko dira gero, amaren DNA ateratzeko. Gero konparaketa bat egingo dute. Prozesu luze samarra da. Eta azkenean gerta daiteke osabarenik ez egotea gorpuzkin horietan, eta lurren mugimenduekin (76 urte igaro baitira) beste nonbait egotea osabarenak, Zirardamendin bertan. Kasu hipotetiko horretan, gure ama

penatua geratuko litzateke segur aski. Hala ere, jende askok lagundu digu prozesu luze honetan, eta guztiei eskerrak ematek aparte, esan behar dut ni neu oso pozik nagoela egindako lanagatik, eta topatu ditudan lagun eta adiskide berriekin. Bihotza orain bitan daukat banatua: erdia Elgoibarko bilakatu da, beste erdia Etxebarrikoa. Hobeto esanda, bihotz osoa bi herri horien erdian, mugan, daukat: Zirardamendin.

Zein zen zure osaba? zein batailotan parte hartu zuen? zer dakizu hari buruz?

Santurtziko Balparda auzokoa zen osaba. Beste lau auzokiderekin batera, Garaizabal konpainian parte hartu zuen. Lau lagun horietako hiruk Zirardamendin osaba nola erori zen ikusi zuten, eta geroago gure amonari eta familiari kontatu zioten. Aitonak elizkizunak egin zizkion Santurtzin, gorpurik gabe, eta Garaizabal konpainiakoak etorri ziren Santurtzira, osabari ohorezko desfilea egiteko. Pixka bat geroago, Arbulu konpainia eratu zuen Euzko Gudarosteak. Gure aitak kontatu zidan (aita Ibaizabal batailoiko tenientea zen), biak joaten ziren oinez etxetik Portugaletera euskara ikastera. Ikasketak haiek gerrak lurperatu zituen.

'Hezurak barik duintasuna dago gaur hemen', esan zenuen zapatuan, hitza hartu zenuenean. Zer esan nahi du zuretzat aurkikuntza honek? Eta zer sentitu zenuen zapatuan?

Bai, jende askorentzat hezurak besterik ez dira azaltzen horrelako kasuetan. Francisco Etxeberriari irakurri eta entzun nion hilobietatik duintasuna berreskuratzen dela. Esan nahi zuen horixe zen: pertsona horien duintasuna, adorea, eskuzabaltasuna, askatasunare-

Felix Arbulu Bilbao, Zirardamendin hil zen gudarietako bat. Garaizabal konpainiako gudaria.

“Ez daukat hitzik baserritarrek egin zutena eskertzeko”

kiko grina, eta kasu horietan Euskadiren askatasunarekiko prestutasuna (dena ematerainokoa), ari garela berreskuratzen. Joan den larunbateko ekitaldi osoa hunkigarria izan zen, eta hitza hartu nuen, ez dakit kanpotik nola ikusi ninduten hara joan zirenek, baina nire barrua dar-dar batean zegoen. Dena den, zirrararik handiena aurreko larunbatean sentitu nuen, zenbait hezur azaldu ondoren, lehen burezurra azaldu zenean. Dena mugitu zitzaidan barruan.

Zirardamendi bertako baserritarrek lurperatu zituzten hilotzok orain 76 urte pasa. Haien lekukotzak ezinbestekoak izan dira hona arte iristeko. Zer esan nahiko zenieke?

Bai, ez dakit baserritar horiei zenbat bider eman dizkiedan eskerrak: Etxebarrin emandako hitzaldi batean, larunbatean gorpuzkinen aurrean, idatzitako hainbat artikulu txikit. Hala ere, daukadan ustea da beti labur geratzen naizela. Ez daukat hitzik haiek egin zutena eskertzeko: Agote familiakoak, Bittorio eta haren aita zen Jose Inazio.



Elgoibarko Felix Etxeberria, afera honetan mugitzen hasi zen lehenetarikoa. Sentimenduak korapilatzen dira. Haiek ikustean, beraiekin egotean, hitzak ateratzen zaizkit ahotik, gehienak bihotzetik, baina ez ditut hitz horiek kontrolatzen; barneko sentimenduz beteta daude. Eurek besarkatzeko gogoia sentitzen dut, eta amaigabeko eskerrik sakonena, beroena eta maitagarriena emateko. Zaila egiten zait hori guztia deskribatzen. Sentimenduzko mundua da.

Bittorio Agote, Gudariak lurperatu zituen Jose Inazio Agoteren semea



Zure aitak, Jose Inazio Agotek, lurperatu zituen zapatuan hobitik atera zituzten gudariak orain 76 urte. Zer dakizu egun hartaz?

Bai, gure aita ibili zen gudariak lurperatzen, baina ez bakarrik. Inguruko baserrietako lagun gehiago ere aritu ziren. Gertatzen dena da azkena topatu dituzten gudari horiek lurperatu zituzten lur saila gure aitarena zela, eta horrexegatik, beharbada, gogoan iltzatuta zeukan han ikusi zuena. Gure aitak egunetan ikusi zituen gudarien gorpuak lurlean. Zortzi-hamar egunean bai behintzat, eta lurperatu ostean ere, egunero pasatzen zen lur horietatik. Oso gogoan zituen haien aurpegiak eta non lurperatu zituzten haietako bakoitza, Errepublikaren banderarekin estalita. Garai hartan Ramon Galdos zegoen Elgoibarko Udalean, eta hark ekarri zuen gudariak lurperatzeko agindua. Jakin badakit gudariak euren lurperatu zituztela han nonbait beste bi lagun, euren bi burkide, eta handik urte batzuetara burezur bat agertu zela inguru hartan.

Beste bi hobi ere lekutu dituzu zuk, baina Aranzadikoek egindako indusketetan ez da ezer agertu. Pena hori duzula entzun genizun zapatuan.

Bai, pena handia daukat gainera. Beti entzun nion aitari halako lekuan Errioxako miliziano bat lurperatu zutela. Leku zehatz bat izendatzen zigen beti aitak, baina han ez da ezer agertu, nahiz gu seguru-seguru egon han behar zuela. Entzunda daukat gestoriako Pedro Garcíaren anaia eta miliziano errioxar hori elkarren ondoan zeudela bala hark milizianoa jo zuenean. Balak jo eta ordubete ingurura hil ei zen errioxarra. Egunean hiru-lau aldiz pasatzen ginen gu inguru hartatik, ardiekin atzera eta aurrera, baina etorri dira indusketa makinak eta ez da hezur bakar bat ere agertu. Pena horixe daukat. Jakizu zer gertatu den 76 urtean! Pinuak ere sartu dira, lurrak ere mugitu dira, eta animaliek euren mugituko zituzten beharbada hezurak. Batek daki!

Zuk emandako argibideei esker iritsi dira hein handi batean lau gudari horiengana, baina kontaguzko zelan izan den guztia.

Luzea da. Orain 30 urte egin behar da atzera. Orduan sei gudariaren gorpuak atera zituzten lurpetik Zirardamendiko pagadian, eta orduan hasi zen hau dena mugitzen. Paco Etxeberria Aranzadikoa sarri etorri da geroztik gurera, informazio eske eta ingurua aztertzen.

Zer gogoratzen duzu ordukoaz?

Jose Maria Otsoa de Txintxetru izeneko gizon bat etorri zen gurera Bilbotik, eta paraje horretan bere sei lagun hil zirela aitatu zion gure aitari. Eta gure aitak baietz, halaxe zela, berak lurperatu zituela. Handik egun batzuetara berriro agertu zen Txintxetru, argazki batzuk eta ‘Pagadi honetan hildakoak goian begoz’ zioen gurutze bat hartuta. Argazkiak ikustean gure aitak ez zuen inolako zalantzarik egin, eta haietako ba-

“Poza eta lasaitasuna hartu dut”

koitza non lurperatu zuten zehaztu zion. Sei gorpu ziren, bi zulotan lurperatuta. Haiek denak orain 30 urte atera zituzten, eta Derioko kanposantura eraman zituzten. Derioko hilerriko bertako langileak etorri ziren. Historia gogorak ziren gudari haienak guztienak. Juan Zabala gudaria, esaterako, seme jaioberria ikustetik zuzenean etorri zen Zirardamendiko pagadira, eta aita izan eta bihamonean hil zuten reketee. Semea bera etorri zen hezur haiek atera zituzten egunean, eta gogoan daukat zera esan zuela, hunkituta: “Zein ondo egon diren hemen pagadian, txorien eta kilkerren kantuak entzuten”.

Ez zen erraza izango orduan ere.

Ez zen erraza izan, ez. Esnaola sendagileak eman zidan neri Zirardamendiko gudarien gorpuak ateratzeko Donostiako Gobernu Zibilak emandako baimena. Tragedia hark ez zuen inoiz gertatu behar. Bilbo-ko koarteleko Gareñanoko soldaduak zeuden inguru hartan Errepublikaren alde borrokatzen. Gudariena gertatu aurreko egunetan, baina pauso bat atzera egin zuten, baina gudari haiek jakin ez halakorik, eta Urkaregira iritsi zirenean zuzenean jo zuten Zirardamendiko pagadira haiekin bat egitekotan. Eta zera, hurbil-hurbiletik hil zituzten reketee.

Zer entzun izan duzu zuk gudari haiei buruz?

Bizimodu txarra zutela. Aldatzeko erroparik ere ez zuten. Gurera etorritzen ziren erropak sikatzera, eta geuk lagatzen genizkien geureak. Jatekorik ere ez zuten. Parean harrapatzen zutena jaten zuten. Ardiren bat hil, eta huraxe, baina, jakina, ardia hil larrutu eta preparatzeko atarazu kontua zenbat denbora behar zuten. Gero, bai. Gero, frontea hemen egonkortu zenean, mandazainek ekartzen zieten jatekoa-eta. Kalamuatik eta Mutrikura bitartean 60.000 boluntario italiar jarri zituzten aurkariak. Egunean hamar pezeta kobratzen zituzten, bost pezetako zilarrezko bi txanpon, eta Errepublikaren alde zebiltzanek, ezer ez.



Goian, omenaldian parte hartu zutenak gudariak lurperatutako lekura bidean, ikurriak hartuta. Behean, Iñaki Odriozola, Bitorio Agote, Felix Etxeberria eta Hodei Otegi, eta hirugarren argazkian, hainbat lekuko eta Aranzadikoak, gorpuzkinak agertu diren lekuan.

Zer sentitu zenuen lehenengo hezurra lur azalera agertu zenean?

Ardura handia sentitzen nuen. Aurrez segurutzat airtu nizkien lekuetan ez zuten ezer topatu, eta ustez seguru egon arren, duda ere egiten nuen azkenerako. Atsekabetuta ere banengoen egia esan, miliziano errioxarra topatzerik ez genuelako izan, eta horrenbeste jende ekarri hona arte, eta ez ezer ez topatzea... Eta horregatik, lehenengo hezurra bistaratu zenean poza eta lasaitasuna hartu nuen. Indusketa makina lurra baztertzen ari zen, eta halako batean, Pacok [Etxeberriak] *alto* agindu zion. Hura zen poza! Badakit hori etxekoentzat handia dela, gainera. Horren adibidea da garai bateko Bilbo inguruko gudariak, EAJkoek, oso estimutan izan gaituztela gu. Nire aita hil zenean ere, meza atera zioten Elgoibarren, pentsa!

Gerrarekin lotutako anekdota bat ere baduzu zuk...

Gogoan daukat gure etxean botiletan gordetzen zituztela mendian topatutako balak. Botila batean reketee balak, beste batean Molaren tropek erabiltzen zituzten balak, beste batean gudariak, eta beste batean milizianoak. Eta 5 bat urte nituenean, nahigabe irentsi egin nuen nik bala haietako bat. On Joxe Izagirre sendagilearengana eraman ninduten, baina hurrengo egunean berez-berez irten zen bala hura, eta listo. Urte askoan isilik gorde da dena, beldurragatik.

Zenbat gorpu daude ateratzeko?

Asko. Nik neuk dakidanak beste zortzi bat bai. Batetik, miliziano errioxarrarena. Bestetik, beste lau gudari daude beste hobi batean; gudariak eurek lurperatutako beste bi lagun ere hor nonbait daude lurperatuta, eta beste gudari baten gorpua ere badago, Zumeta baserriko lurretan. Hori atera beharko dugu hurrengo, besteekin ez dugu zortzerik izan-eta.

Ainara Argoitia


Oharra: Elgoibar 1936 datu bila dabil, eta gai honekin lotutako informazioa duen edonork honako bide hauek ditu haiekin harremanetan jartzeko: elgoibar1936@gmail.com edo 605 772 285 (Hodei).

asiskourmeneta

Komikilaria eta 'Gartxot' filmaren zuzendaria

Nafarroa arragoa egitasmoaren barruan, **Gartxot** filma ikusteko eta Asisko Urmenetaren azalpenak entzuteko aukera izango da Elgoibarren gaur zortzi, hilaren 18an. Arturo Campionek idatzitako kondaira da **Gartxot**, euskararen aldeko aldarrikapena. Istorioan murgildu ahala, baina, gauza gehiago ere kontatzen direla ohartuko da ikuslea: hor dago Donejakue Bidea, hor bardoak, hor Karlomagnoaren jarraitzaile inperiozaleak... Osagai asko, hari finez josita.

Bere argazki bat eskatuta, karikatura hau bidali du Asisko Urmenetak. Komikilariaren beraren 'autoerretratua'.



“Arrotzak beti tematu diragu zatitzen”

Arturo Campionek duela ehun urte idatzitako XII. mendeko istorioa da marrazkitan jaso duzuen, Campionek berak Zaraitzun jasotako kondaira. Zelan moldatu zarete garai haiek irudikatzeke?

XII. mendeko atmosfera horretan sartzeko, dokumentazio idatzira eta grafikora jo genuen. Deus gutxi da XII. mendeari buruz dagoe-na. Idatzirik bada zerbaixka, baina ezin jakin nolakoak ziren etxeak, jantziak... Baina marrazki bizidunak egitea hori da egiazki: mundua idaztea, zerotik hasita. Dena sortua da. Beharbada gero etorriko da paleoarkelogo bat edo arkitekto bat eta erranen du ez dela zuzena guk eginikoa, baina guk inpresioa eman nahi izan dugu XII. mendean ginela. Hizkera ere baliotu dugu horretarako. Ez dugu berreraiki nahi izan XII. mendeko euskara, ez baitago gure esku, baina bai eman nahi izan diogu ekialdeko ukitu arkaiko bat.

Nafarroako konkistaren kontrako ikurra da Gartxot, baina konkistaz gain, beste gai batzuk ere aipatzen dituzue filmean. Esango nuke bardoak zer ziren ezagutzeko ere balioko diela askori.

Bai, bai, hori nahi izan dugu. Ni komikiaren mundutik iritsi naiz, eta komikigintzan bada ezinbesteko erreferentzia bat: *Asterix*. Asterixek duena da haurrak garelarik ikaragarri gustatzen zaigula, baina gero hartzen

dugula handiagotan eta deskubritzen dugula badi-rela beste plano batzuk, beste kritika batzuk. Goscinny [René] ikaragarri ona zen gidoigintzan. Gartxotekin, konparatu nahi izan gabe Goscinny jenioarekin, hori egin nahi izan dugu. Batetik, bada istorio lineal bat, Campionena, baina, bestetik, istorio horrek baditu adaxkak, erroak, hostoak... Bardoen aipatu duzu. Bardoak ziren garai hartako zibilizazioaren disko gogorra. Ingalaterrak Gales bereganatu zuenean, adibidez, bardo guztiak garbitzea izan zen egin zuen lehendabiziko gauza. Hori da espainolek egin nahi izan dutena duela 500 urteko konkistaz geroztik. Konkista bat egoten denean lehendabiziko gauzetako bat iragana ezabatzea izaten da beti, eta guk testuinguru hartan bardoek zer garrantzi izan zuten kontatu dugu. Egiazki, Campionen duda batetik abiatu zen narrazioa.

Zer esan nahi duzu?

Campionek erraten zuen euskalduna herri kantaria zela eta euskaldunok ez genuela hainbeste garaipen militarrik izan historian barrena. Kontrakoa. Orduan ez zuen ulertzen nola Orreagakoa bezalako garaipenak, sekulako oihartzuna izan zuenak Europa osoan eta gure erresumen egituraketa ahalbidetu zuenak, ez zuen oihartzunik izan gure kantagintzan. Eta hortik abiatuta, egiazki bardoek eta gure zibilizazioa-

ren kontrako jazarpen bat egon zela kontatu nahi izan zuen, eta Gartxot geroztik, galdu dela hari bat, iraganarekiko lotura bat.

XII. mendeko historia da, baina esango nuke baduela gaurkotasunik.

Bai, bai. Zer gara euskaldunok oraindik ere? Jende askorentzat, anomalia bat. Hemen gara bidegurutze ikaragarri handi batean, bi inperio handiren artean, eta bi inperio horiek batzuetan izan dira elkarren etsai, eta beraien xake partida horretan, zatikatu gaituzte. Orain oso lagunak dira, eta ez dakit panorama hobea den. Arrotzak beti tematu izan dira gu zatitzen, eta guretzako bizkarrezurra izan direna, Pirinioak, beraientzat muga izan dira, horrek dakarren distorsio guztiarekin. Erromatarren garaitik heldu da oraingo zatiketa, eta azken 2.000 urtean horretan ibili dira. Eta gu hemen, beti egoskor eta beti bat. Kanpokoek beti tratatu gaituzte anomaliatzat. Asimilatu nahi izan gaituzte, baina gaur da eguna gu saiatzen garela hori distorsionatzen eta paperetan horren txukun dutena aldrebesten. Hemen gaude, zanpatzen gaituzte oraindik ere, eta beraz, ez gara libre, baina zanpatzen gaituzten horiek ere ez daude bakean, ez daude eroso. Seguru asko xahutu beharko dute disolbatzaile gastriko gehiago, gu liseritu ahal izateko, eta sufrituko dituzte ultzerak eta denetarik, baina, hala ere, ez digute alde egiten uzten eta ezta mintzatzen ere.

Erresistentziaren irudia da Gartxot. Hizkuntzarekiko atxikimendua, jazarpenaren kontrako borroka... Karga handiko filma da zuena, eta musikak aparteko indarra daukala esango nuke.

Komikia egin genuen guk lehendabizi, eta egin genuen lehendabiziko gauza Benitorekin [Lertxundi] harremanetan jartzea izan zen, bera izan delako Campionen garaitik gure garaira arteko lotura. Benitori esker ezagutu zuen jende askok Campionen Itzaltzuko bardoaren legenda, eta horregatik oinarritzko katebegia izan da kate luze horretan. Deitu genion, eta berak ikaragarri ondo hartu gintuen, beti bezala. Gizon librea da, eta ezinbestekoa pentsatzeko maneran. Horregatik guri ezinbestekoa egiten zitzaigun Benitoren parte-hartzea.

Gartxoten rola betetzea ere proposatu zenioten Benito Lertxundiri.

Bai, baina ezetza eman zigun, eta eman zizkigun arrazoiak oso arrazoizkoak iruditu zitzaizkigun. Batetik, erran zigun protagonismo sobera hartuko zuela, eta bestetik, erran zigun kezka zuela bere formakuntzagaratik sobera domestikatuko ote zuen Gartxoten pertsonaia. Gartxotek behar zuen izan XII. mendeko bertsolari eskola gabea eta zirikatzailea. Ni konbentzitua nago Benitok egiten ahal zuela izugarri ongi, baina erran zigun ezetz, eta proposatu zigun Mixel Etxekoparregana joatea. Mixel Gotaine-Irabarneko (Zuberoa) musikaria da, musika basoan txoriei entzunez ikasi duena, eta zernahi egin dezakeena. Mixelek badu, gainera, bertso zaletasun handia eta badu zirikatzaile izpiritu hori ere. Eta halaxe, azkenean berak bete du Gartxoten papera. Hala ere, Benitoren parte-hartzea eta baita Olatz Zugastirena ere oso handia izan da. Beraien diskografiatik tiratzeko baimena eman ziguten lehendabiziko unetik, eta oso inplikatuak izan dira biak. Ezinbestekoak. Ikusle erneak, gainera, ezagutuko ditu haien ahotsak filmean zehar.

Bitxia da, hala ere, halako tragedia bat irudikatzeko karikaturizazioa jo izana. Sudur handi horiek-eta...

Marrazki bizidunen film batean, dena da asmatu beharra, eta dena egitekoa denez, zergatik egin gauza hipererrealista bat, anatomikoki perfektua dena? Gainera, nik ez dakit hipererrealismoa egiten; beraz, ez zen horretarako arriskurik. Apustua izan zen. Komikia egin genuen lehendabizi, eta Benitok berak erran zigun arriskua ikusten zuela sudur luzeekin istorioa banalizatzeko. Gero laburmetraia egin genuen eta txertatu genituen pertsonaia horiek paisaia, eta filma ikusi ondoren, hunkitu egin zen. Egindako lana mirestekoa zela erran zigun. Alde horretatik, nik, pertsonaia horien egilea naizelarik, erran behar dut talde handi bat ibili dela hor osagai horiek guztiak bildu eta istorioa sinesgarria egiten.

“Zibilizazio hartako disko gogorra ziren bardoak”



Filmeko lehenengo minutuek arreta osoa eskatzen dute. Hor ere apustu handia egin duzue.

Orokorrean hori erran du jendeak; hasieran kosta egin zaiela istorioan sartzea. Egia da hasieran oso deskriptiboa dela filma eta jakin egin behar dela non kokatzen den, eta latina eta okzitaniera nahasteak ere zaila egiten du, baina gero jendea nonbait ahaztu egiten zaio marrazkiak ikusten ari dela ere, eta bukaeraraino eramaten du dramak; batzuetan hunkitzeraino.

Animaziozko filma, baina helduentzat. Karikaturizazioa, tragedia bat irudikatzeak, eta gainera, euskaraz, baina ez batuaz. Ekoizpen-etxeak berak ere ez du apustu makala egin zuekin.

Ez. Beste edozein ekoizpen-etxeak aspaldi zidaten ostikoa eman, film hau antikomertziala delako edozein ikuspuntutatik begiratuta. Sekulako poza izan da.

Marrakzi bizidunak eta euskaraz. Saillapen errazetara jota, haurrentzakoa dela pentsa dezake batek, baina ezta urrik eman ere. Zeinentzat egin duzue? Nola hartzen dituzu halako saillapenak?

Bai, erori gara horretan ere. ETBekin gertatu da. ETB haurrentzako katea da; ez da seriozki euskaldunentzako kate bat eraiki. Infantilizazioan erori gara, baina hori da herri honetarako planifikatu den hizkuntza-politikaren isla. Batzuek erranen dute 'bai, guk ez dugu euskaraz ikasi, baina gure haurrak eramanen ditugu ikastolara', eta horrekin irudi du ordaindu dutela peajea. Hizkuntzaren infantilizazioa fenomeno bat da. Eta marrazki bizidunena zer? Ni komikiaren mundutik nator, eta nire aldarrikapena beti izan da erratea 'pasatu Baionara, eta ikusi komikiaren saila'. Han ikusiko dituzu komiki erotikoak, belikoak, intimistak... Hemen Hegoaldean, ez. Hemen, Hegoaldean, espainolen eraginez zabaldu dena da komikia dela haurrentzat, eta, gainera, gripeak jota daudenerako. Nolanahi ere, guk erraten dugu Gartzot dela 11 urtez gorakoentzako.

Hoztan bizi zara oker ez banago (Nafarroa Beherea). Ez zinen ba horregatik joango Iparraldera, ezta?

Kar-kar-kar. Egia erran ez, ez naiz errefuxiatu komikiaren munduan sartzeko, baina egiazki plazer bat da hemengoa.

Euskara da filmaren gai zentrala. Sarri egin duzu euskararen alde,

eta bereziki euskara "informala" sustatzearen alde. Arriskuan ikusten duzu hizkuntzaren beraren freskotasuna?

Bai. Gure adierazpideetan ditugun hutsak aztertzearen aldekoa naiz. Nik uste dut sortu beharko genuela talde eragile bat eta hor sartu Antton Olariaga bat, Anton Lupu, Mattin Irigoien, Itxaro Borda eta horien antzera sortzaile eta hizkuntza-jostalari den jendea, eta sortu adierazpideak, eta zabaldu. Filma egitean, nik argi neukan jendea XII. mendeko Pirinio aldera eraman nahi bagenuen, ez zela agertzen ahal Gartzot, eta erran: 'Egongo gara'. Akademizismo horretatik urrundu behar ginen, batetik, eta, bestetik, lokalizazio geografikotik eman behar genuen aditzera, betiere zailtasun sobera eman gabe, ekialdeko haizea zekarrela istorioak.

Azken urte hauetan asko zabaldu da goi esparruko hizkuntza akademizista, funtzionarizatua eta monokromoa, eta nik beharra ikusten dut beste hizkuntza normalduetan duten antzeko beste esparru hori indartzea. Euskaraz, lortu dugu batuaz goi mailako euskara bat, eta gero beheko esparruetan, kasurik hoberenetan euskalkietara jotzen dugu, betiere euskalkia bizirik dagoen lekuetan, eta kasurik okerrenetan, erdaretara. Eta guk bi erdara ditugunez, horrek zailtasunak ekartzen ditu gazteen artean elkar konprenitzeko.

Ez zara akademia zalea.

Nik ez dut errango akademizismo hori lastre bat denik, ez dudalako ezer egin goi esparru horietan, baina batzuetan bai dela traba normal bizitzeko. Euskaldun zaharrak ez du euskaraz hitz egin nahi publikoki, uste duelako ez dakiela euskaldun berriak bezain ongi; euskaldun berriak, berriz, ez du hitz egin nahi lotsa delako. Iruditzen zait erraztasun gehiago eman behar dela. Erdaraz ari garelarik, inor ez da etortzen 'hau gaizki erran duzu' erranez. Eta euskaraz ari zarelarik, goizeko lauretan ere agerturen zaizu norbait erranez 'hori ez da horrela esaten'. Aurrera egin behar da, jostagarri egin behar dugu euskara, eta ez tematu horrenbeste ararekin-eta.

Hilaren 18an, Nafarroa arragoa egitasmoaren barruan, Gartzot filma ikusteko aukera izango dugu Elgoibarren. Ondoren, hitzaldia emango duzu. Saldu ezazu zuk zeuk saio hori.

Ez naiz ona marketinean, baina beti pentsatzen dut gustuz egingadako lanak beti transmititzen duela zerbait. Niri klasikoak asko gustatzen zaizkit, liburu gehienak eginak baitira Euskaltzaindia eta beste akademiak sortu aurretik, eta horrek libertate bat ematen dielako idazleei zernahi libreki esateko. Joan Tartas zuberotarra da klasiko bat, eta Tartasek dio jendeak egiten dituen obrak oro direla hiru suerteko: edo hilak, edo biziak, edo mortifikantiak. Niri lan funtzionarioak egiten zaizkit oso mortifikantiak, gozatu gabe egiten direlako, eta guk egin duguna erranen nuke bizi dela, asko gozatu baitugu.

“Jostagarri egin behar dugu euskara, eta ez tematu horrenbeste ararekin-eta”



Juanjo Elordi eta Asisko Urmeneta 'Gartzot' filmaren zuzendariak, kartelarekin.



Botiloiaren ondorioak jasan dituzte IMHn: "Aski da! 1991n IMH zabaldu zenean, barrutia irekita uztea erabaki zen, herritarrok hango lorategiez eta jolastokiez gozatu ahal izateko. Eta urte guzti haue-tan, aisialdiaz gozatzeko gune bihurtu da elgoibartarrontza-ko. Zoritxarrez, azken urteetan bandalismoa jasaten ari ga-ra etengabe, eta astero botiloiaren ondorioak, suteak, zikin-keria, animalien gorotzak, etabar luzea jasaten ditugu, eta zer esanik ez asteburuetan! Zikindutako ingurua garbitzen eta konpontzen lan ordu dexente igarotzen ditugu asteko lehen egunetan. Hala, IMHko ingurua errespetuz erabiltze-ko eskatzen dizuegu herritarroi, eta han zaudetela bizikide-tza zapuzten duten zerbait ikusten baduzue berehala sala-tzeko".



Bernardo Ezenarro kalean zamalanetarako gu-nea kendu dute: "Aparkatzeko arazo handiak izaten ditugu herriko erdigunean, eta eskerrak eman behar dizkiogu Udalari, Bernardo Ezena-rron kalean zamalanetarako egokitu zituen aparkalekuak guztiontzako erabilgarri jarri dituelako. Eskerrik asko".



Eskerrik asko Errosa-rio kaleko Ama Birji-naren azpian dagoen zakarrontzia kendu dutelako: "Oso zata-rra zegoen Errosario kaleko Ama Birjina dagoen horma zati hori. Oso dotore jarri zuten Ama Birjina jaie-tarako, baina zaka-rrontziak dena zatar-tzen zuen. Norbait konturatu dela dirudi, beraz, kendu duenari txalo bero bat".



Txankakuak eskerrak eman nahi ditu: "Dendak Bizirik eta Stock feria antolatu dugunon helburua herrian giro ona sortu, herriko komertzioaren garrantziaz ohartarazi eta gure aurreneko stock feria egitea zen, eta pozik gaude egindakoaz. Uste dugu modu batera edo bestera elgoi-bartar askorengana iritsi garela, eta hori dela-eta, eske-rrak eman nahi dizkiegu Dendak Bizirik eta Stock feria programaren barruko ekintzak antolatzen lagundu digu-ten guztiei: Ion Zubiaurre, Inazio Bereziartua Musika Es-kola, Biraka Dantza (Iosu Mujika), Zuhaitz Gurrutxaga, El-goibarko Udala, Ostalarien Elkarte eta Txankakua elkar-teko dendariei. Komertzioak bizia ematen du".



PELLO RUBIO

“Prozesuari emandako gizonak dira Arnaldo Otegi eta Jesus Egiguren”

Beheko suaren epelean hartu gaitu Pello Rubiok Txillarren, urteetan Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramailea eta Jesus Egiguren PSE-EEko presidentea batu ziren egurrezko mahaiaren bueltan. “Beheko suak giro atsegina sortzen laguntzen du”, dio. “Hori izan zen Txillarrek bileretan nire papera: hemen hizketarako giroa sortzea”, gehitu du. Argazkirako, hiru liburu ekarri ditu mahaira. Jesus Egigurenen *ETA, las claves de la paz*, Fermin Munarrizen *El tiempo de las luces* eta Imanol Muruaren *Loiolako hegiak*. “Jesus eta Arnaldo dira hemen protagonistak, eta ez ni”, argitu du hasi aurretik.

‘Su txikian’ antzezlanak taularatuko dute gaur Elgoibarren. Antzezlaneko Pello Rubio hori zara zu? Zer iruditu zaizu obra bera?

Fikziotik dezente dauka nire pertsonaiak. Gizartearen eta politikariaren arteko zubia naiz, istorioko notarioa-edo. Akta liburu bat idazten dut obran, eta azkenean, mahaiaren laga eta han jasotakoari heltzeko erronka botatzen diot gizarteari. Narratzaile antzeko bat naiz. Eta bai, gustatu zait obra. Ostegunean hemen izan ziren aktoreak bazkaltzen, base-riko energia positiboa transmititzeko.

2000. urtean hasi zineten Paco Egea, Arnaldo Otegi eta zu batzen. Zerk bultzatuta?

Modu naturalean izan zen. Neuk batu nituen biak, eta urtebetez ia hilero bildu ginen hemen, Txillarren, politikaz eta politika ez zenaz hitz egiteko. Aspaldiko lagunak ditut biak. 17 urte zituenetik ezagutzen dut nik Arnaldo, Francoren garaian borroka askotan eta batzar askotan egokitu ginelako elkarrekin. Ni ez naiz behin ere ezker abertzalekoa izan, LKlkoa (Liga Komunista Iraultzailea) baizik, troskista-edo, baina Francoren garaian, Franco kentzea zen lehentasuna. Paco ere 18 urte zituenetik ezagutzen nuen, lantokitik. Ez zegoen motibazio politikorik bileren atzean?

Ez. Ez gunden hitz egitea beste helbururik. Hala joan zen 2000. urtea, eta 2001. urte hasieran Jesus Egiguren batuko zaizue. Nork gonbidatuta?

Paco Egeak berak proposatu zuen, eta Arnaldok gustura hartu zuen. Eta halaxe 2001eko hasieran hasi zen etortzen Jesus. Baina helburua ez zen bakeaz edota ETAz hitz egitea. Mahai batean bueltan hitz egitea baizik. Eta Jesus etortzen hasi eta hilabete batzuetara, ia Fernando [Barrena] gonbidatuko gunden galdetu zigun Otegi. Eta bostok hasi ginen batzen.

Garai zailak ziren. Batetik, ETAk hautetsi so-

zialistak zituen atentatueta jomugan, eta bestetik, Espainiako Auzitegi Nazionala bete-betea zebilen ezker abertzaleko egituren kontra.

Eta, gainera, Espainian PPK agintzen zuen! Horrek erakusten du hemen bildu direnak beti egon direla negoziatzearen alde. Arnaldo da horren adibidea. Beti egon da hizketarako prest, gai honi irtenbide bat emateko.

Jesus Egiguren eta Fernando Barrena gehitu zitzaizkizuen, Txillarreko bilerek kutsu politiko handiagoa hartuko zuten, ala?

Ez pentsa. 2001-2005ra bitartean 40 bat bilera egingo genituen. 40 bat otordu. Ez genuen egutegi finkorik; haien agenden arabera jartzen genituen hitzorduak. Aldaketa nabarmena 2004ko martxoaren 11n Madril izan ziren atentatuaren ondoren etorri zen [talde islamista batek lau lehengailu zartarazi zituen bidaiariz betetako lau trenetan. 191 lagun hil zituzten]. Mahai honetako inork espero ez genuen zerbait gertatu zen orduan: inkestek PPKri ematen zioten garaipea, baina besteak beste, PPKoek atentatu haren harira esan zituzten gezurrak direla-eta, Jose Luis Rodriguez Zapaterok irabazi zituen Espainiako hauteskunde orokorrak, eta aukera berri bat zabaldu zitzaigun. Jesusek Txillarren egosten ari zenaren berri eman zion Zapaterori, eta honek beste abantada bat hartu zuen. Negoziaziorako aukera ikusi zuen Jesusek.

ETA ere hitz egiteko prest azaldu zen.

Bai. ETAre aurreneko gutuna ere hona iritsi zen, Txillarrera. Gobernuarekin harremanetan jartzeko prest agertu zen ETA. Hortik sortzen da Genevako lehenengo bilera [2005]. Neronek eraman nuen Jesus hara, berak eskatuta. Bi-hiru egunean egin genuen Genevara joan-etorria. Dunant zentrokoekin geldituta zegoen han [Henry Dunant Elkarrizketa Humanitariorako zentroa]. Bilera haietan Egigurenek bide-orri bat adostu zuen Josu Urrutikoetxea ETAre ordezkariarekin eta gero etorri zen ETAre su-etena [2006ko martxoaren 22an].

Nolakoak izaten ziren Txillarreko bilera?

Oso naturalak. Errespetuzkoak. Arnaldo ondo ezagutzen nuen, baina niretzat istorio honetan deskubrimetua Jesus izan zen. Benetako politikaria da, eta hori Arnaldok berak ere aitortzen du *El tiempo de las luces* liburuan. Gaur egunean politikari txarlatan asko daude. Jesus, baina, benetako politikaria da, Aizarna bertakoa, eta ezker abertzalekoak

gertuko ditu. Eta hori oso garrantzitsua da. Inportantea da haien azalean jarri eta gauzak ulertzen saiatzea. Jesusen lekuan beste bat balitz hona etortzen hasi zena aspaldi ziren hemengo bilera eten. Pertsona handia da. Esaten duena barru-barrutik esaten du.

Zein hizkuntzatan izaten ziren bilera?

Gaztelaniaz, Paco Egeak ez zekielako euskaraz. Biera bakarra egin zuten euskaraz: Iparraldekoak gonbidatu zituztenean, Xabi Larralde eta Frantzia Maitia etorri zirenean.

Egigurenek bizkartzainak erabili ditu urteetan. Hona ere lagunduta etortzen zen?

Bai, baina etxe barrura sekula ez ziren sartu.

“Jesusen [Egiguren] ordeztu beste bat balitz hona etortzen hasi zena aspaldi ziren bilera eten”

2000 amaieran hasi zireten batzen, eta bost urtean inor ez zen ezertaz enteratu. Diskretak behintzat bazarete. Nola egiten zenuten?

Isilean ibili beharra zegoen-eta! Geure neurriak hartzen genituen. Gogoan daukat askotan neronek joan behar izaten nuela furgonetaz Jesusen bila. Arnaldo ere igo izan dut kaja artean sartuta. Saiatzen nintzen enkarguak aurretik aurre ematen. Txoferra, sukaldaria, telefonista, erreka-dista... nintzen ni. Horixe zen nire papera. Baina hori baino garrantzitsua goa zen hemen giro ona sortzea, hemen zeuden bitartean gustura, eroso, egon zitezkeen hizketan. Garrantzia handia eman nion nik hori beti, eta beheko suak berak lagundu zidan horretan.

Elgoibarren izango zen Txillarreko bilera berri zuten bakarren bat. Ez duzu uste?

Ez. Elgoibarren ere ez. Jakina, publiko egin ondoren, denek esaten zuten bazekitela zerbait, baina nik beti esaten dut kiniela ostiralean egin behar dela eta ez astelehenean.

Bost urtean une gogorak ere izan ziren. Legez kanporatzeak eta atxilotak batetik, eta bestetik, ETAre atentatuak. Juan Priede Orioko zinegotzi sozialista eta Froilan Elspe Lasartekoa, esaterako, urte horietan hil zituen ETAK. Nola bizi izan zenituzten?

Ez ziren une errazak izaten, eta halakoak gertatzen zirenetan saiatzen ziren aldi batez bilerarik ez jartzen. Hala ere, gertatzen zena gertatzen zela, hizketan jarraitzeko konpromisoa hartua zuten aurretik. Argi zegoen zein zeinen izenean ari zen. Arnaldo Otegik ez zuen ezker abertzalea ordezkatzeko, eta Jesus Egiguren ez zen sozialisten izenean ari. Nork bere izenean hitz egin zuen hemen. Idatziz ere jaso zuten, 2002an [Agiri originala atera du erakusteko. Gaztelaniaz dago, *Prolegómeno para un diálogo político* dauka izenburua eta biera hartan parte hartu zutenek sinatuta dago: Barrena, Otegi, Egea eta Egiguren. Barrenak idatzi zuen ordenagailuz, Txillarren].

Lehenengoz Tiempo aldizkarian aipatu zituzten Txillarreko bilera.

[Ale bat ekarri du. 2005eko maiatzaren 2ko data dauka]. Uste dugu Pernandori segika iritsi zirela hona. Dena den, informazioa ez da zuzena. Adibidez, Rafa aipatzen dute, baina Rafa [Diez] ez zen behin ere egon hemen.

Euskal Herrian baserri gehiago ere badira esan zuen horren harira Otegik.

Tiempo publiko egin ostean beste baserri batzuetan ere egin genituen bilera, bagenekielako hau oso zainduta egongo zela. Larreak egin genuen bilera bat, arztain txabolaren batean ere bai... Bazkaria hartuta joaten nintzen Txillaretik.

Zelatarien gaia aipatzen du Imanol Muruak Loiolako Hegoak liburuan. Kontaiguzu.

Liburuko gertakari hori 2005ean izan zen. Auzoko emakume bat etorri zitzaidan esanez hemen atzeko arbola artean pertsona bat zebilela mikrofono batekin eta kamararekin. Somatu genuenean, berehala desegin genuen bilera, eta hartu beharreko prebentzio neurriak ere hartu genituen, gizon hura argazkiaren atzetik zebilelako. Egun horretan neuk eraman behar nuen Jesus Egiguren Donostiara, eta errepidean behera hartu beharrean, gorantz hartu genuen. Eta hara! Azkoitiko errepidean zegoen gizon haren autoa aparkatuta. Oinez jaitsi zen Txillarreraino.

Makina batek ezagutuko dute honezkero zuten etxe buelta hori.

Asko ibili dira hemen bueltak, bai. Behin gogoratzen dut hor, Karakate magal horretan, hiru ordu egin zituela kotxe batek aparkatuta. Bi lagun ikusten nituen lurrean jarrita, eta berotu nintzen, hartu nuen autoa eta bertara joan nintzaia ia zer demontretan ari ziren

galdetzero. Matrikula zenbakia hartu eta etxera bueltatu nintzen. Ez nuen zeintzuk ziren jakiterik izan, baina kazetariak izango ziren ziurrenik. Beste behin, Azkoititik barrena Jesusekin etxera nentorrela, konturatu ginen auto bat segika genuela. Gelditu genuen kotoxea, irten ginen biok sututa, eta uxatu genituen. Jesusek uste du ertzainak zirela.

Ez zenuen inoiz *Dena ETA da* arrazoitzen zutenen zakuan jausteko arriskurik ikusi?

Ez. Bizitzan arrisku batzuk hartu egin behar dira, gainera. Begiratu Arnaldo non dagoen! Badakigu estatu espainola nolako den, baina operazio honetan parte hartzearen arriskua hori zen. Beldurrik ez, baina Madrilgo tertulianoak giroa berotzen ikusten nituenean kezka antzeko bat izaten nuen, bai: eskuin muturrekoek kezkatzen ninduten. Hona etorri eta edozer egiteko gai ikusten nituen.

Mahai honen bueltan eseri zenetako bat, Otegi, kartzelan dute preso, eta bestea, Egi-guren, politikako lehen lerrotik aldendu da, bere hitzetan urteetan “zorotzat” hartu dute-lako eta horrek “hustu” egin duelako. Zer sentitzen duzu halakoetan?

Irlandan ere gertatu zen hori. Prozesuari emandako gizonak dira biak, eta Jesusi gertatu zaiona da bere etxean eman diotela egur handiena. Eta, jakina, 40 urtean gauza baten atzetik ibili eta behin lortu dutenean, hori... Nola liteke, baina? Frustazio ikaragarria izan behar da. Otegi, berriz, jakin du ezker abertzalearen masa osoa beste bide batera eramaten. Maria Antoniari [Maria Antonia Iglesias kazetaria] ere esan nion behin. Otegi itsasontzi osoa eraman nahi zuela beste portu batera, eta horrek denbora eta esfortzu handia eskatzen zuela. Espainiako Gobernuak, dela PSOE egon edo PP egon agintean, nahiago luke bidean itsasontzi hori zatituko balitz, baina itsasontzia oso-osorik ari da portura iristen.

Egea, Otegi, Egi-guren eta Barrenaz gain, politikari gehiagok ere ikasi dute Txillarreko bi-dea.

Bai. 2005era arte, horiek eta Patxi Lopez. Blokeo egoera batean geunden hemen, eta mahai honetan egiten ari zirenari babesa emateko etorri zen Lopez, PSE-EEko idazkari zela. Zapatero Gobernura iritsi zenean mahaiko jendea aldatu egin zen, baina. Rodolfo Aresekin batera hasiko da etortzen Egi-guren, eta ezker abertzaletik, Rufi Etxeberria eta Olatz Duñabeitia etorriko dira Otegiarekin.

ETAk su-etena eman arte, negoziazio luzeak izan ziren. Gauza asko gertatu ziren bilera horiek iraun zuten denboran. Anotako proposamena, Zapateroren bisita Donostiara... Kursaaletan, Otegi bake gizona zela esan zuen Zapaterok, adibidez. Hemen egosita-koaren ondorio dira horiek, hein batean.

Eta orain zer?

Nik uste dut lehenengo eta behin presoan gaiari irtenbide bat topatu behar zaiola, eta bitartean, elkarbizitza landu behar dela. Dena den, nik uste dut elkarbizitza hori berez etorriko dela; hemen ez da Irlandan bezain zaila izango. Izan ere, hemen denok batera bizi izan gara. Baliteke harreman tirabiratsuak eduki izana gure artean, baina hemen ez gara Irlandan moduan bi hormak bereizita egon. Elkarbizitzan asko hobetu dugu, eta hori oraindik Arnaldo preso dutela, presoan gaia ez dela konpondu... Estatuak etekin handia atera dio ETAr, eta orain ez dagoela, noraezean dabil. Argi gelditu da hemengo gatazka ez dela ETaren borroka armatura mugatzen, eta irtenbide bat bilatu behar dugu, Katalunian egiten ari diren bezala.

“Gure belaunaldiak sortu zuen ETA, adibidez, eta guri zegokigun amaitzea”

Zuk zer paper betetzen zenuen bileretan?

Lehenengo fasean neuk ere ematen nuen iritzia, baina jakina, nik nire iritzia izan arren, saiatzen nintzen beti erdibidetik jotzen, bi aldeak elkarrengana gerturatzen-edo. Bigarren fasean, bilerek beste seriotasun bat hartu zutenean, ni alboratu egin nintzen apur bat. Han egoten nintzen, baina entzuten.

Horixe falta da herri honetan: alde biak gerturatuko dituen norbait. Ez duzu uste?

Bai, eta antzerkian agertzen da hori. Ezin dugu sufrimendua luzatu. Ni beti erdibideen aldekoa izan naiz; nire izateko era izan da. Bizitzak erakutsi dit hori. Gure eginbeharra dela sentitzen dut, gainera. Gure belaunaldiak sortu zuen ETA, adibidez, eta gure belaunal-

diari zegokigun amaitzea, konponbiderako pausoak ematea. Pentsa zenbat urte galdu ditugun egin diren astakeriengatik!.

Beheko suak giro atsegina sortzen lagundu zizula diozu. Inoiz tokatu zaizu suhiltzaile lanak egin behar izatea?

Behin ere ez. Jakina, horrek ez du esan nahi bakoitzak bere posizioa defendatzen ez zuenik! Eskema hau gizartera eraman behar dugu. Beheko sua, bazkaria... denak laguntzen zuen. Eta bada beste gauza bat. Hona etorritakoek barazkiz betetako otar batekin joan dira beti etxera! Baserriko ohitura da.

Noiz arte iraun dute Txillarreko bilerek?

Orain gutxira arte. Arnaldok Martuteneko kartzela utzi ostean ere jarraitu zuten hemen biltzen. Beste bost-sei bilera egin zituen Arnaldok Jesusekin, harik eta *Bateragune auzian* berriro atxilotu zuten arte. Ez zuten errenditu nahi. Datu bat emango dizut: [2007ko ekainean 6an] su-etena eten zuela iragarri aurretik, ETAk Barajasko aireportuko T-4 terminala txikitu zuen [2006ko abenduaren 30ean]. Bada, goiz horretan bertan, Arnaldok eta Jesusek bilera egin zuten Txillarren. Gabon zahar feria zen Elgoibarren, eta ni 6:00etatik azokan nengoen, baina Arnaldo etorri zen giltzaren bila eta han egon ziren biak, nire etxean. Jakina, bilerarako hitzordua aurretik zuten lotuta, ez baitzuten Madrilén gertatuko zenaren berri. Jesusek deitu zidan telefonoz niri. Hortik aurrerakoa gogorra izan zen, ikusi zutelako apurtzen ari zela ordura arte egindako lan guztia. Arnaldo *Bateragune auzian* atxilotu aurretik arte jarraitu zuten batzen, eta gero kartzelara ere eraman dut nik Jesus, Otegi bisitatzerako. Baita Maria Antonia Iglesias ere, aurrez babajan bat ere egina genuelako hirurok Txillarren.

Euskal Herriko etxe askotan debekatuta dago otorduetan politikaz berba egitea.

Hemen kontrakoa. Bazkariak hizketan jarraitzeko giroa sortzen laguntzen zuen.

Zerbait gehituko zenuke?

Faltan botatzen dudala Arnaldo, kontu honetan guztian bera delako, Jesusekin batera, protagonista nagusia. Egoera honetara iristeko pieza klabea izan da, eta ulertezina da kartzelan izatea. Besarkada bat Arnaldorentzat, eta izan dezala lehenbailehen antzezlan hau ikusteko aukera, gustatuko zaio-eta.

BARREN:

“Txillarre” <http://www.elgoibarren.net/content/view/3864/11/>

“Arnaldo Otegi” <http://www.elgoibarren.net/content/view/3611/11/>

“Gerra elgoibartarren ahotan:

https://docs.google.com/gview?url=http://www.elgoibarren.net/barren/barren_0823_2012-05-11.pdf

“Gudariei ohore Zirardamendin”:

https://docs.google.com/gview?url=http://www.elgoibarren.net/barren/barren_0829_2012-06-22.pdf

Asisko Urmeneta:

https://docs.google.com/gview?url=http://www.elgoibarren.net/barren/barren_0840_2012-10-11.pdf